

Ikastola ikusezina begi bistara

1992ko edizioak eraikin txukuna egiteko balio izan bazuen, oraingoak, 15 urte beranduago Erentzun ikastola normalizatzeko balioko duela uste dute urtebetez lanean aritu diren ikasle, irakasle eta gurasoek. Ikastolara iristeko errepide ondoko seinalea falta bada ere, ikusezin izateari utzi eta euskaltzaleen babesari esker, arreta guztia bereganatuko du urriaren 21ean.

Testua eta argazkiak:

LANDER ARBELAITZ

LOGROÑOTIK bederatzi kilometrora eta Iruñetik 81era egon arren, Errioxa eta Nafarroaren arteko mugan, azkenaren aldean geratu da Viana. Ondoren muga gehiago marraztu izan dira Nafarroa zatikatuz, eta eremu ez-euskalduna deituriko zakuan sartu zuten aipatu herria, beste askorekin batera. Errealitate horretan bizi da Erentzun ikastola 1978an sortu zutenetik.

Ikastolaren ondoan bada Kuetu izeneko muinoa. Bertara igotzen denak pare bat begiradatan hiru administrazioetan banatutako hiru lurralde begiztatzeko aukera izanen du. Lehenik, Nafarroa ikusiko du Viana aldera begiratuz, XIII. mendeko eliza dotorearen arrasto eta guzti. Ondoren, ikastola aldera zuzentzen bada, begiak zorrotzuz, atzean Logroño ikus daitekeela konturatuko da. Azkenik, ikastolaren eskuineko soroetara egiten badu so, zeruertza Araban pausatzen dela jakin beharko du.

Kokagune geografiko horren kariaz, inguruko herrietatik ere etortzen dira ikasleak bertako ikastolara, hala Bargota (Nafarroa), Aras (Nafarroa) edo Logroñotik (Errioxa) bertatik ere. Hala ere, nahiz eta bianar gazteen zatirik handiena herriko eskola publikora joan, bianarrak dira gehien-go Erentzun ikastolan. Etengabe gora doa haur matrikulatuen kopurua eta aurten 133 ikasle dituzte, iaz baino 16 gehiago. Ikastola herrian gero eta onartuago dagoela dio Aritz Lizarraga ikastolako zuzendari gazteak, baina oraindik ere bide luzea egin behar dutela aipatu du.



Erentzun ikastolako zuzendari Aritz Lizarraga, bertako ikasleek margotutako Picassoren *Gernika* margolanaren bertsio baten aurrean.

Ikasle kopuruaren gorakada ikastolak herrian duen onarpenaren zeinuztat har daiteke, eta bide horretan 1992an Vianan egindako Nafarroa Oinez garrantzitsua izan zela uste du askok. Euskara eta euskal kultura guztiz arrotz zen ingurunean, milaka pertsona biltzea gauza handia izan zen bertako euskaltzaleentzat. Hala dio Lizarraga zuzendariak: “Txerritoki izandako eraikinean egotetik, eraikin txukun baterako pausoa eman zuten ikastolak ateratako diruarekin; hori historikoa izan zen”.

Lizarraga haserre dago ia 30 urtez lanean ari den ikastola izanik, inoiz errekonozimendu minimorik egin ez

diotelako Nafarroako agintariek. “1978ko martxoan hasi zen hau eta inongo dudarik ez izan oso urte gogorak izan zirela haiek. Egun herriko Udala ez dago alde, baina garai haieran Udala bera ere zeharo kontra zegoen, eta horren adibide da 14 urtetan sei lekutan kokatu dela ikastola”.

Aro “legal” berria

Urtebete pasa da Nafarroako Gobernuak Lodosako, Tuterako, Irunberriko eta Vianako ikastolak legeztatu zituenetik. Ordura arte, alegalegoan egon ziren eta ez ziren Nafarroako ikastetxeen sareko partaide, horrek dakartzan ondorio guztiekin. “Eragin

Alberto Garcia, Erentzun ikastolako guraso errioxarra

“Batzuetan Logroñoeko eskola batera aldatuko dugula esaten diogu, baina alabak ez du hori entzun ere egin nahi”

Logroñon (Errioxa) jaio eta bertan bizi izan den arren, euskaltzale sutsua da Alberto Garcia. “Niretzat gauzarik handiena euskara da eta zaindu egin behar da”, esan digu etxean ikasitako bizkaiera garbian. Bederatzi urteko Adriana alaba Errioxako hiriburutik Vianako Erentzun ikastolara egunero autobusez joaten da beste zortzi lagunekin.

Osasun arazoek bultzatuta, klima lehorragoaren bila joan ziren Mañariatik

(Bizkaia) Errioxara Garcaren gurasoak. Etxeko hizkuntza euskara izan dute. “Logroñon lehenengo euskara ikasi behar da, ez baduzu hala egiten, ez baitago atzera bueltarik”. Irribarrez gogoratzen du eskolan hasi zenean ia ez zuela gaztelarrik ulertu ere egiten.

Garcaren emazte Eva Inza Badajozen (Extremadura) jaio, baina gaztetatik Logroñon bizi da. Alabak amarekin gaztelaraz egiten duen arren, euskaraz egiten du hitz aitarekin. Errioxan jaioa izan arren, oso ongi egiten du euskaraz. “Euskara batua eta bizkaiera nahasten ditu batzuetan, baina hori ona da, hizkuntzaren aberastasuna baita”, dio aitak pozik.



Logroñotik joaten dira egunero Vianako ikastolara Alberto Garcaren alaba (erdian) eta ilobak.

Adrianaren gelan zortzi ikasle dira eta oso giro ona dagoela dio aitak, bai ikasle eta baita irakasleen artean ere. “Batzuetan brometan esaten diogu datorren urtean Logroñoeko eskolaren batera aldatuko dugula, gertuago dagoelako, baina berak ez du hori entzun ere egin nahi”.

Alberto Nafarroa Oinezen prestakuntzan aritu da, grafismo batzordean. “Ez nuen ezagutzen zein handia den egun hau Erentzun ikastolarentzat, txundigarria da sortu duen ilusioa, bai ikasle, irakasle eta gurasoengan”.

“Alaba ikastolara bidaltzen duzu?”

Ikastolez hitz egitea ez da gauza erraza Logroñon, hori da behintzat

Garciak ondorioztatu duena. Beren lagunei axola ez zaien arren, begirada eta komentario txarrak behin baino gehiagotan egin izan dizkiotela aitortu du: “Nolatan eramaten duzu alaba Nafarroako ikastola batera hemen hainbeste eskola izanda?” galdeztzen didate harrিতuta, eta nik dena azaltzen diet, eta ulertzen badute ondo, eta ez badute ulertzen ere,

ondo. Jada, berdin zait zer pentsatzen duen jendeak”. Hala ere, ikastolaren gaiarekin meriturik handiena bere emazteak duela uste du, euskalduna ez izan arren, beti jarraera ulerkorra izan baitu.

Alberto Garciak jatetxea du Logroñon bertan eta berak dio urteekin konturatu dela badela jendea ez dena bere jatetxera joaten euskaraz mintzo delako, baina hala ere, berdin zaiola. “Lehen tentuz ibiltzen nintzen alabarekin ari nintzeanean inork ez gintzan euskaraz entzun, baina orain alaba hazten ari da eta irrikitan izaten naiz euskaldunen bat noiz etorriko berarekin euskaraz hitz egiteko”.

ekonomiko garrantzitsuak izateaz gain, ilegal etiketa kentzea lortu dugu”. Eremu ez-euskalduneko ikastola hauek arnasa hartu ahal izan dute, pixka bat bada ere.

Legalitatea lortzea zen orain arte helburu nagusia, orain berriz, kalitate planean dute begirada jarria. Frontoi estalia egiteaz gain, zerotik sei urte artekoentzat eraikina egingo dute.

“Muturreko egoeran geunden, jantokia zena goizez, arratsaldetan liburutegia zen, eta arteko gela kendu egin dugu gela bat gehiago izan dezagun”.

Denboraren eraginez, ikastolara seme-alabak bidaltzen dituzten gurasoak “geroz eta pluralagoak” direla argi dagoela ziurtatu du, eta hori herrian duten irudia pixkanaka aldatzen laguntzen ari dela. “Badakigu

non gauden eta euskararen gaitik ateratzen bagara, betikoak lepora joaten zaizkigu; oso tentuz ibili behar dugu”.

Giltza dankagu lemapean ospatuko da aurtengo Nafarroa Oinez festa; aspaldiko mamu zaharrak uxatu eta bide batez, euskarari eta euskaraz bizi nahi dutenei hiru lurraldek zipiritindutako eremu zailera atea irekitzeko. ■

Babeslea: Emun

EMUN
LANA EUSKALDUNTZEKO
KOOPERATIBA

HIZKUNTZA AHOLKULARITZA ETA EUSKARAZKO ZERBITZUAK:

- Enpresa eta erakundeen premiei egokitutako euskara planen kudeaketa
- Itzulpenak
- Euskara formazioa

Uriburu, 9 behea 20500 Arrasate Tel. 943 711 847 ● Martin Ugalde Kultur Parkea 20.140 Andoain Tel.943 300 978
emun@emun.com ● www.emun.com